



## **STEILASek bat egiten du Iruñeko haur eskolen greba deialdiarekin.**

STEILASek babes osoa adierazten die Iruñeko haur eskoletako langileei.

Otsailaren 12rako CCOO, LAB eta AFAPNA sindikatuek (Iruñeko haur eskoletako langileen batzordean ordezkariak duten sindikatuak) langileak grebara deitu dituzte, eskatzeko Nafarroako Gobernuak onar ez dezan 2021-2022 ikasturterako Iruñeko Udalak egindako hezkuntza-eskaintzaren berregituratzea.

STEILASek babes osoa adierazten die langile horiei guztiei, daramaten borrokan.

Batzorde horretako sindikatuek baieztatu duten bezala "proposamen berri honen lanketan ez dute parte-hartzerik izan ez zuzendariak, ez hezkuntza taldeak ezta langileen batzordeak ere; ez da kontuan hartu proposamenari balio pedagogikoa emanen dion hizkuntza proiekturik edo azterketarik". "Inplikazio pedagogikoez aparte, eskolen antolaketan eta lan taldeetan izan ditzaketen ondorioak gehitu behar zaizkio". Horrek guztiak Iruñeko Haur Eskolen hezkuntza proiektua baldintzatu dezake.

STEILASek eta hezkuntza komunitatea osatzen dugun gainerakook urteak daramatzagu gure kezka eta haserrea erakusten Iruñeko Udalari eta Nafarroako Parlamentuko ordezkariari, adierazten Nafarroako berezko bi hizkuntzetan ikasteko eskubidea urratzen dela, alegia. Orobat, jakinarazi diegu beharrezkoa dela Hezkuntza Departamentuaren menpeko 0-3 ziklo publikoa eta kudeaketa bateratukoa. Gisa horretan baizik ez dira bermatuko haur hezkuntzan (0-6an) ekitatea, doakotasuna eta unibertsaltasuna eta lan baldintza duinak ziurtatzea.

**STEILASek bere egiten ditu eskoletako langileek adierazitako aldarriak, eta dei egiten digu hezkuntza komunitatea osatzen dugun guztioi, langileek antolatuko duten greba deialdian eta mobilizazioetan parte har dezagun.**

---

## **STEILAS se adhiere a la convocatoria de huelga de las escuelas infantiles de Iruña.**

STEILAS muestra su apoyo incondicional al personal de las escuelas infantiles del Ayuntamiento de Iruña/Pamplona.

Los sindicatos representantes en el comité (CCOO, LAB Y AFAPNA) han convocado una huelga el próximo 12 de febrero para que el Gobierno de Navarra no apruebe la reestructuración de la oferta educativa de las escuelas infantiles del Ayuntamiento de Iruña para el curso 2021-2022.

STEILAS desea mostrar su apoyo a las trabajadoras y trabajadores en su lucha.

Tal y como han afirmado los sindicatos integrantes de este comité "la elaboración de la nueva oferta no ha contado en ningún momento con la participación ni de las direcciones, ni equipos educativos, ni comisiones de personal, tampoco con ningún estudio o proyecto lingüístico que respalde su validez pedagógica". "A dichas implicaciones pedagógicas se añaden las que pueden afectar a nivel organizativo y laboral". Todo esto puede comprometer el proyecto pedagógico.

STEILAS lleva muchos años, junto con el resto de la comunidad educativa, denunciando nuestra preocupación e indignación al Ayuntamiento de Pamplona y a los representantes parlamentarios, y la vulneración del derecho a estudiar en las dos lenguas propias de Navarra. Les hemos argumentado también la necesidad de un ciclo 0-3, dependiente del Departamento de Educación, común y público. Sólo así se puede garantizar una educación infantil (0-6) equitativa, gratuita y universal, y asegurar unas condiciones laborales dignas.

**STEILAS hace suyas las reivindicaciones de los y las trabajadoras de las escuelas; por ello, llama a toda la comunidad educativa para que participe en la huelga y en las movilizaciones que se organizarán.**

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba 📞 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus